

19. zenbakia
2016ko ekaina

bai

ziurtagiridunen
aldizkaria



Bai Euskarari Sariak 2016



Praktika egokien
posterra barruan

Elkar argitu

Gure etorkizuna euskaraz pentsatu eta eraiki behar da. Euskaraz bizitzea, euskaraz lan egitea, ekitea, sortzea, berritzea, saltzea eta erostea... egunerokotasunean euskaraz normaltasun osoz aritzea posible bada, gure ongizatea handiagoa izango da. Horra hor gure erronka.

Alor sozioekonomikoaren espazioetan euskalduntzearen eragiteari begirako proiektuak lantzen eta sortzen ari gara, gure azken hausnarketa estrategikoan zehaztu zen bezala. Horren azken adibidea da ekainaren erdialdean aurkeztu zen eta 2015etik Arabako beste hainbat aktoreekin batera (Arabako Foru Aldundia, SEA - Arabako Enpresariak, Arabako Merkataritza eta Industria ganbara, Merkataritza Federazioa, Oreka IT, Electra Vitoria eta Laneki) landutako "Lanabes - Araban Euskara Lanean" proiektua. Honek erakusten du denon inplikazioa behar dela lan mundua euskalduntzeko ezinbestekoak diren neurriak erabaki eta eraginkortasunez aplikatzeko.

"Hitzargiak - Elkar argitzen duten hizkuntzak" izeneko egitasmoaren topaketak burutu ziren ekainaren bukaeran eta bertan, Lanabesekin batera, Ziurtagiriaren Elkartearen beste bi proiektu aurkeztu ziren jardunbide eredugarri gisa: Bai Euskarari Ziurtagiria eta Enpresarean. Jardunbide horiek berritzaileak, egoiak, arrakastatsuak edota eredugarriak dira, bai gure komunitatearentzat, baita beste hizkuntza- edota hiztun-komunitate hainbatentzat ere. Jardunbide egoiak ezagutzeak ondorio biderkatzaileak izan ditzake: esperientziak partekatzeak, besteengandik ikasteak,

elkar elikatzeak eta laguntzeak ekimenen arrakasta indartu dezake, eta, eraginkortasuna sendotu.

Ibilbide arrakastatsua eta eredugarria dute, zalan-tzarik gabe, aurtan Bai Euskarari Sariak jaso dituztenak. Mikel Lezamiz Mondragon Korporazioko Hedapen Kooperatiboko arduraduna izan da azken urteotan. Kooperatibagintzan ez ezik, lan handia egin du Mondragon Taldearen barruan euskararen alde, taldeko euskara koordinatzaile izan delarik. Mikelekin batera, Bai Euskarari Ziurtagiria duten beste bi entitate saritu ditugu. Batetik, Lanbide Heziketan euskararen presentzia handitzeko eta sendotzeko etengabeko lanean diharduen Laneki elkarteak. Euskararen erabilerari dagokionez, hezkuntza eta mundu profesionalaren artean dagoen aldea txikitzen lanean segitzeko konpromisoa berretsi dute. Bestetik, Zugarramurdiko Sorginen Museo eta Lezea. Oso argi dute euskarak duen garrantzia; bezeroari eskainitako zerbitzuetan, beraien euskarrietan eta aurkezpenetan, esate baterako, euskara lehenesten dute beste hainbat hizkuntzen artean. Era berean, mugaz gaindiko Xareta eskualdeko dinamizatzaile ekonomiko ezinbesteko bihurtu dira bertan turismoa sustatuz.

Euskaraz lan egin eta euskaraz bizi daitekeela erakusten digute goiko adibideek. Lan handia dugu egiteko, baina bide onean goaz. Gure komunitatearen ongizatean eragingo dugu esperientziak elkartrukatuz eta elkarrekin lan eginez. Azken batean, elkar argituz.



Rober Gutiérrez
[zuzendaria]
@robergutierrez

Berriak 03

Lanabes ekimena

Elkarrizketa 05

Mikel Lezamiz
Mondragoneko Hedapen
Kooperatiboko arduraduna
eta euskara koordinatzailea

Praktika egokiak 07

Posterrak

Hitzargiak 11

Elkarrizketa 12

Rikar Lamadrid
Lanekiko presidentea

Elkarrizketa 14

Ainhua Agirre
Sorginen Museo eta
Lezeko kudeatzailea

Argitaratzailea: Ziurtagiriaren Elkartea www.baieuskarari.eus · Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain t. 943592148
1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0559255041 · Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 902430026
Pedro Asua, 27 behe - 01008 Gasteiz t. 945215196 · Martzelo Zelaia, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa 31014 Iruñea t. 902430026

Zuzendaria: Rober Gutiérrez · Kudeaketa eta erredakzio-taldea: Ziurtagiriaren Elkartea eta Arteman Komunikazioa.
Diseinua eta maketazioa: dalvez · Argazkiak: Ziurtagiriaren Elkartea eta Arteman Komunikazioa.
Inprimatzailea: Leitzaran · Banaketa: Ziurtagiriaren Elkartea · Lege gordailua: SS-497-2010

 @baieuskarari

 baieuskarariziurtagiria

www.baieuskarari.eus



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Eziago poligonoa, 21 · Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 · Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Lanabes ekimenak euskara lanera eramango du Araban

Lanabes - Araban Euskara Lanean ekimenak orain arte egindako lanaren eta etorkizunerako plan-gintzaren berri eman zuen ekainaren 14an Artiumen. Arabako Foru Aldundiak, SEAK (Arabako Enpresariak), Arabako Merkataritza eta Industria ganbarak, Merkataritza Federazioak, Oreaka IT-k, Electra Vitoriak, Lanekik eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek osatzen dute Lanabeseko talde-eragilea eta lan-munduan euskara sustatzea du helburu ekimenak.



Arabian gero eta enpresa gehiago ari da euskara euren eguneroko kudeaketan barneratzen, bezeroekiko zein hornitzaileekiko harremanetan erabiltzen, hizkuntza paisaian, barrura eta kanpora begira. Hor daude, esate baterako ziurtagiria duten enpresak eta euskara plana dutenak. Aldaketak ari dira ematen eta, pixkanaka, euskara sustatzeak eta erabiltzeak ekar ditzakeen onurez ari dira jabetzen enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak.

Lanabesen talde-eragileak Arabako arlo

sozioekonomikoko hainbat eragileren aurrean egin zuen proiektuaren inguruko aurkezpena. Arabako lan-munduan euskara sustatzeko hiru lan-ildo adostu ditu Lanabesek:

- “Lanabes - Araban Euskara Lanean” ekimena gidatu duen taldeari segimendua eta zabalkundea ematea.
- Arabako sektore sozioekonomikoa euskararen erabileraz sentibilizatzea. Komunikazioa.
- Era guztietako entitateak eta per-

tsonak inplikatzeko, Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia handitzeko.

Lan-mundua euskalduntzen indarra jarri

Igone Martínez de Luna Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak nabarmendu zuen orain arte hezkuntza euskalduntzean jarri direla indarrak, baina lan-mundua euskalduntzeari ere erreparatu behar zaiola, gizar-

teak eleanitza izaten jarrai dezan: "Oso garrantzitsua da konturatzea hezkuntza eta lana ardatz garrantzitsuak izango direla Araban eleaniztasunari dagokion kolorea emateko. Bien arteko harremana landu behar da eta oraintxe da unea horri helitzeko. Harrobia badago, lanabesak behar dira, ordea, harrobia lan-mundura eramateko," esan zuen.

Arabako lan mundua hizkuntza kudeaketan eredu garri izateko nahia azaldu zuen Martínez de Luna foru diputatuak. Hizkuntza kudeaketaz aritzean "batzeaz", "hizkuntzen arteko orekaz", "gizartearen bilakaerari erantzuteaz" eta "herri garapenez" ari garela nabarmendu zuen.

Enpresen inplikazioa

Lan-munduari euskalduntzean eragitea da Lanabesen helburua eta hori lortzeko ezinbestekoa da enpresak eta profesionalak inplikatzeko. Lanabesen talde-eragilean parte hartzen du SEA-Arabako Enpresariak elkarteak eta Aitor Otola SEAk Zuzendari Laguntzaileak inplikazio hori berretsi zuen.

Neurriak erabaki eta eraginkortasunez aplikatu

Rober Gutiérrez Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak nabarmendu zuen Lanabes proiektuak erakusten duela "denon inplikazioa"

behar dela lan-mundua euskalduntzeko "ezinbestekoak" diren neurriak erabaki eta eraginkortasunez aplikatzeko.

Hala, Lanabesen elkarlanean euskara bultzatzeko egiten ari diren lana eredu garritzat jo zuen Gutiérrezek: "Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzeko eta handitzeko helburu partekatuarekin ari gara denok lanean. Elkarri aitortuz bakoitzak duen garrantzia, elkar babesten, osagarritasuna bilatzen eta guztion arteko elkarlana bideratzen. Espero dezagun arrakastarik handiena izatea," azaldu zuen.

Berrikuntza

Azkenik, Pilar García de Salazar Arabako diputatu nagusiordeak hartu zuen hitza aurkezpenean. Lan-mundua lehiakor izateko berrikuntza nahi-taez behar duela azpimarratu zuen eta esan zuen "berrikuntza bezala aldarrikatu eta indarrean jarri" nahi duela Araban ere hizkuntza kudeaketa egokia garatzea, bai enpresetan eta baita Lanbide Heziketan ere.

Lanabes.eus

Lanabesen etorkizuneko plangintza azaltzeaz gain, webgunea ere aurkeztu zuen ekimenak: www.lanabes.eus webgunean aurki daiteke ekimenaren inguruko informazio eguneratua. ●



Herri hizkera kontrolatzen duzu?

Sartu eta jarri zure burua proban

Herrizki aplikazioarekin

artez AKTING...

artez

hizkuntza aholkularitza

itzulpen zerbitzua

bai euskarari

artez eta lanabes

www.artez.eus

Mikel Lezamiz

Mondragoneko Hedapen Kooperatiboko arduraduna eta euskara koordinatzailea

“Enpresetan euskara normalizazio plangintzak egin behar dira eta estrategia bat martxan jarri”

Mondragon Korporazioko Hedapen Kooperatiboko arduraduna izan da azken urteotan Mikel Lezamiz eta orain dela gutxi hartu du erretiroa. Kooperatibagintzan ez ezik, lan handia egin du Mondragon Taldearen barruan euskararen alde, taldeko euskara koordinatzaile izan delarik. Lan-munduan euskararen alde egindako lana aitortzeko, Bai Euskarari Laguna saria jaso du aurten.

Zer da zuretzat Bai Euskarari Laguna saria jasotzea?

Errekonozimendu bat da. Dena dela, sari hau ez da niretzat bakarrik; Mondragon Taldean kooperatibagintzan ari garen guztiontzat da, sentsibilizatuta baikaude euskararekin.

Kooperatibagintza eta euskalgintza uztartu izan dituzu bizitza profesional osoan. Orain dela gutxi erretiroa hartuta, nola ikusten duzu euskara kooperatibagintzan?

Hemendik urte batzuetara ziurtatuko da kooperatibetan euskaraz lan egiteko aukera. Ez dakitenek ikasiko dute eta, ulertu egiten badute behintzat, beste guztiek euskaraz lan egiteko aukera izango dute. Bide horretan goaz. Kooperatiba guztietan daude gaur egun euskararen normalizazio plangintzak. Krisi ekonomikoa gogorra izan da guretzat ere, baina ez da bazter batera utzi euskararen aldeko lana.

Lorpen handiak egin dira kooperatibagintzan lan-mundua euskaldunago izan dadin. Zer nabarmenduko zenuke? Zergatik beste era bateko enpresetan ez dira lortu kooperatibetan lortutakoak?



Produkzioa garrantzitsua da, enpresaren emaitzak garrantzitsuak dira, pertsonak zaintzea garrantzitsua da eta pertsonen barruan dago hizkuntza, komunikazioa. Mondragon Taldean plan estrategiko korporatiboan dugu sartuta euskara. Adibidez, Mondragon Taldearen Batzar

“Normalizazio plangintzetatik enpresen plan estrategikoetara sartu behar da euskara”

Iraunkorrak euskaraz funtzionatzen du duela 5-6 urtetik hona. Enpresa talde handi batek euskaraz funtzionatzea adierazgarria da. Normalizazio plangintzetatik plan estrategikoetara sartu behar da euskara.

Printzipio kooperatiboetan idatzita eta barruan sartuta dugu euskararekiko errespetua. Beste enpresetan ere aurrera doaz, baina poliki. Beharbada beste gauza batzuei ematen diete garrantzia. Euskarak gainbalio bat ematen dio enpresari. Euskararen inguruan sarri talde ezberdinak batzen gara eta horrek ere barne-kohesio bat ematen dio enpresari.

Fagor Etxetresnen auziarekin askok zalantzan jarri zuten kooperatibagintza eredua. Zer irakasgai jaso zenuten Mondragon barruan auzi hartatik?

Asko sufritu genuen Fagor Etxetresnen

#BaiEuskarariSariak

erorketa. 2013an 25.000 enpresa itxi ziren Estatuan. Kooperatiba taldean, aldiz, bat erori zen eta horrekin bazi-rudien kooperatiba talde osoa pikutara joan zitekeela. Ez da horrela. Ikasketa garrantzitsuena da ezin dela etsi, erabakiak hartu behar ditugula; enpresa kooperatiboa izan arren irabaziak izan behar ditu eta ezin gaitu loak hartu. Kooperatiba batean, denok parte garenez, aurrera begira askoz gehiago eskatu behar diogu gure buruari eta erabakiak hartu enpresa iraunkorra ez bada. Kooperatibek etorkizuna dute, batez ere mende honetan. XXI. mendea eza-gutzaren mendea eta giza-kapitalarena dela esaten da. Ezagutza askoz gehiago dugu gaur egun eta horrek laguntzen du guztiok erabakiak hartzeko ahalmena izaten. Kooperatibetan funtsa pertsona da, ez kapitala. Kapitala errekurso bat da, bitartekoa. Hortik datoz tendentziak eta kooperatibek bide handia dute egin-da aspektu horretan. Etorkizuneko sistema izango dira kooperatibak.

Nola uztartzen dira nazioartekotzea eta kooperatibagintza?

Gaur egun mundua txikia da edozein enpresarentzat eta nazioartekotzean dago etorkizuna. Salmenten % 71 nazioartean egin dute Mondragon Taldeko kooperatibek eta horri esker mantendu dira enpresak eta lanpostuak. Euskara eta gaztelania jakitetik ingelesa edo

“Enpresetan ere eragingo du gizarteko aldaketak, gizartea geroz eta euskaldunagoa baita”



beste hizkuntza batzuk jakitera pasagara. Euskara eta gaztelania dakienak beste hizkuntza bat errazago ikasten duela frogatuta dago. Horrek lagundu egiten dio gizarteari nazioartekotzean irekiagoak egiten, beti ere erro indartsu bat izanda: euskara.

Enpresetan euskararen erabilera behar egin du azken urteotan. Soziologoa ere bazarenez, zein uste duzu izan direla beherakada horren arrazoiak? Zer egin beharko litzateke enpresetan euskara txertatzeko?

Azken urteetan kooperatibetan ere gutxitu da pixka bat erabilera, krisiaren ondorioz bitartekoak kendu direlako. Beharbada orain ez dago olatuaren gainean euskararen erabilera enpresetan, baina etorriko da. Enpresetan ere eragingo du gizarteko aldaketak, gizartea geroz eta euskaldunagoa baita. Badaude plangintzak Osakidetza euskalduntzeko, zerbitzu publikoak euskalduntzeko... denda eta enpresa txikietan ere ari dira plangintzeekin... eta horiek guztiek eragingo diete enpresei. Garai hobeak etorriko dira, ziur.

Enpresetan euskara gehiago txertatzeko euskaldunak kontratatu behar dira eta gero erabilpena bermatu behar da.

Enpresek sentsibilizatu behar dute baina administrazioak ere gehiago lagundu behar du normalizazio prozesuetan. Hezkuntzan asko lagundu da, Osakidetzan ere ari dira, baina lan-mundua esparru pribatua izatean ez da hainbeste lagundu. Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek lagundu beharko liekete euskara normalizazio prozesuetan hasten diren enpresa txiki, ertain eta handiei. Enpresetan euskara normalizazio plangintzak egin behar dira eta estrategia bat martxan jarri.

Garbi dagoena da ikasleek txikitatik euskaraz ikasten dutela, Lanbide Heziketan eta unibertsitatean ere aukera dutela horretarako, baina lan-mundura datozenean esparru guztiz erdalduna aurkitzen dute. Irakasgai hori zintzilik dugu guztiok; langile euskaldunok, enpresek eta administrazioek.

Zuk egindako lana eredugarri ikusten duzu beste batzuentzat?

Gehiegi iruditzen zait hori esatea. Askoren lana izan da ni neu ere euskararen arloan ibiltzea. Beste askori esker izan ez balitz, neuk ere lana erdaraz egin beharko nukeen. Lan-munduan euskara bultzatzen aritu diren talde guztientzat da sari hau. ●



Leitzaran
GRUPO

Leitzaran Gráficas, S.L.
Martín Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel: 943 303510 - fax: 943 593067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakia



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala

#BaipraktikaEgokia

Euskaraz lan egin nahi duzu eta ez dakizu nondik hasi? Hemen dituzu 20 jarraibide

¿Quieres trabajar en euskara y no sabes por dónde empezar? Te proponemos 20 pautas

Vous voulez travailler en basque et vous ne savez pas par où commencer? Nous vous proposons 20 lignes directrices



1

Enpresetan zer bitzua eta lana euskaraz izatera iristeko baliabidea zehaztea. Bai Euskarari Ziurtagiriarren bidez
Definir el camino para que las empresas lleguen a ofrecer sus servicios en euskara y trabajar en euskara, por medio del Certificado Bai Euskarari

Zuzendaritzaren eta langileen konpromisoa, euskaraz lan egiteko edota bezeroei euskarazko zer bitzua eskaintzeko
El compromiso de la dirección y de los/as empleados/as para trabajar y ofrecer el servicio en euskara

Euskaraz lan egiteko irizpideak eta baliabideak adostea, ezartzea eta komunikatzea: eta horien segimendua egitea
Acordar, implantar y comunicar los criterios y recursos para trabajar en euskara y realizar su seguimiento

Enpresak bermatzea langile guztiek lanpostua gartzeko hizkuntza gaitasuna izango dutela, ahoz zein idatziz
Las empresas han de garantizar que sus miembros tengan la capacidad lingüística necesaria para desempeñar su trabajo, a nivel oral y escrito



4

L'entreprise devra s'assurer que tous les membres doivent avoir la maîtrise nécessaire pour leur poste de travail, à l'oral comme à l'écrit



5

Kontratazioetan, hizkuntzaren irizpidea aintzat hartzea
Tener en consideración el criterio lingüístico en todas las modalidades de contratación

Lanerako baliabideek (softwareak, dokumentazioak,...) euskaraz lan egiteko aukera bermatzea
Definir los recursos necesarios (software, documentación,...) para garantizar la opción de trabajar en euskara

Langileentzako elementuak euskaraz egotea: lan hitzarmena, kontratuak, nominak, etab.
Todos los elementos utilizados en las relaciones internas estarán en euskara: convenios, contratos, nominas, etc.

Bezeroak euskaraz arituak izateak: aurrez aurre, telefonoz eta on-line
La clientela será atendida en euskara, tanto en las relaciones presenciales como en las telefónicas y on-line



8

Les clients sont accueillis en euskara, au téléphone, en face-à-face et on-line



9



10



11



12

#BaiPraktikaEgokia

Euskaraz lan egin nahi duzu eta ez dakizu nondik hasi?
Hemen dituzu 20 jarraibide



1

Enpresetan zerbitzua eta
lana euskaraz izatera
iristeko ibilbidea zehaztea,
Bai Euskarari
Ziurtagiriaren bidez



2

Zuzendaritzaren eta
langileen konpromisoa,
euskaraz lan egiteko edota
bezeroei euskarazko
zerbitzua eskaintzeko



3

Euskaraz lan egiteko
irizpideak eta baliabideak
adostea, ezartzea eta
komunikatzea; eta horien
segimendua egitea



4

Enpresek bermatzea
langile guztiek lanpostua
garatzeko hizkuntza
gaitasuna izango dutela,
ahoz zein idatziz



5

Kontratazioetan,
hizkuntzaren irizpidea
aintzat hartzea



6

Lanerako baliabideak
(softwareak,
dokumentazioak...) euskaraz lan egiteko
aukera bermatzea



7

Langileentzako
elementuak euskaraz
egotea: lan hitzarmena,
kontratuak, nominak, etab.



8

Bezeroak euskaraz
artatuak izatea: aurrez
aurre, telefonoz eta on-line



9



10



11



12

Lehenengo hitzetik euskaraz, bezeroei euskaraz egiteko aukera errazteko



13

Etiketak eta bilgarriak euskaraz ere egotea, bezeroei eskainitako informazioa baita



17

Interneteko interfazeak zein edukiak euskaraz izatea. .EUS domeinua erabiltzea

Euskal hiztuna bisualki identifikatzea, bereizgarriren bat erabiliz



14

Publizitateari dagokionez, elementu guztiak euskaraz egotea eta euskaraz sortzea



18

Makinetan ageri diren testuak eta tiketak euskaraz egotea: salmenta-makinak, kutxazainak, etab.

Kontratututako zerbitzuetako pertsonen ere euskaraz aritzeko gaitasuna izatea



15

Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zuzendutako elementuak euskaraz egotea: menuak, fakturak, etab.



19

Enpresen hornitzaileek euskaraz aritzeko gaitasuna izatea: aholkularitza, telemarketing zerbitzua, garraio enpresa, etab.

Kartel, erroteru eta abarretan euskara lehenestea



16

Megafonia bidezko informazio guztiak euskaraz izatea



20

Administrazioekiko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz hutsez izatea

Lan eta bizi euskaraz
baieuskarari.eus



/baieuskararizurtagiria



@baieuskarari



Ziurtagiriaren
Elkartea



Lehenengo hitzetik euskaraz.
bezeroei euskaraz egiteko aukera

errazteko
Dirigirse a la clientela en euskara desde el principio, con el fin de facilitar que pueda comunicarse en euskara
Parler dès le premier mot en euskara, pour faciliter la possibilité que le client s'exprime en euskara



13

Etiketak eta bilgariak euskaraz ere egotea, bezeroei eskaintako informazioa baita

Lo apropiado es que el etiquetaje y los envoltorios estén en euskara, ya que es información destinada a la clientela
L'etiquetage et les supports d'emballage doivent aussi être en euskara, car c'est de l'information pour le client



17

Interneteko interfazeak zein edukialak euskaraz izatea. .EUS domeinua erabiltzea

Lo idóneo es que los contenidos que gestione la entidad en Internet estén en euskara y que se utilice el dominio .EUS
L'interface d'internet et le contenu sont en euskara. Utiliser le domaine .EUS

Euskal hitzuna bisualki identifikatzea, bereizgarriten bat erabiltz

Identificar visualmente a los/as trabajadoras/as vascoparlantes
Identifier visuellement le/la/s bascophone/s par le/des d'un signe distinctif



14

Publizitateari dagokionez, elementu guztiak euskaraz egotea eta euskaraz sortzea

En publicidad, lo adecuado es que todos los elementos estén en euskara y, además, sean creados en euskara
Dans la publicité, les éléments doivent être en euskara et créés en euskara



18

Makinetan ageri diren testuak eta tiketak euskaraz egotea:

salmenta-makinak, kutxazainak, etab.

Los textos de las pantallas o tickets de las máquinas expendedoras, cajeros automáticos, etc. habrán de estar en euskara
Les textes écrits dans les machines et les tickets sont en euskara, les caisses...

Kontratatutako zerbitzuetako pertsonak ere euskaraz artizeko gaitasuna izatea

Las personas de los servicios contratados tendrán la suficiente capacitación lingüística
Les personnes employées doivent aussi avoir la maîtrise nécessaire de l'euskara



15

Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zuzendutako elementuak euskaraz egotea: menuak, fakturak, etab.

Los elementos destinados a consumidores/as y usuarios/as estarán en euskara: menú, facturas...

Los elementos qui s'adressent aux consommateurs et utilisateurs sont en euskara: guides, catalogues, menus, devis, factures, etc.



19

Enpresen hornitzaileek euskaraz artizeko gaitasuna izatea:

aholkularitza, telemarketing zerbitzua, garraio enpresa, etab.

Los proveedores que intervengan en el funcionamiento de la entidad (asesoría, servicio de telemarketing, transporte...) estarán capacitados para trabajar en euskara
Les fournisseurs des entreprises ont la capacité de parler en euskara: conseil, avocat, service de telemarketing...

Kartel, errotoiu eta abarretan euskaraz lehenestea

Dar prioridad al euskara en los carteles, rótulos y demás elementos del paisaje lingüístico
Donner un traitement prioritaire à l'euskara dans la signalétique



16

Megafonia bidezko informazio guztiak euskaraz izatea

Lo adecuado es que todas las informaciones vía megafonía sean en euskara
Les informations communiquées par le mégaphone sont en euskara



20

Administrazioekiko ahoko eta idatzitzko harremanak euskara hulsez izatea

Las comunicaciones escritas y orales con las administraciones serán exclusivamente en euskara
Les relations écrites et orales avec les administrations sont uniquement en euskara

Lan eta bizi euskaraz
baieuskarari.eus



/baieuskarariziturtagiria

@baieuskarari

bai
euskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea



Bai Euskarari, Enpresarean eta Lanabes: jardunbide egoki Hitzargiak Topaketan

Ekainaren 23an eta 24an egin zen Hitzargiak Topaketa Hernaniko Orona Ideon. Hitzargiak-en xedea da biziberritze-prozesuan murgilduta dauden hizkuntza- eta hiztun-komunitateek elkar ezagutzea eta haien arteko harremanak sendotzea, etorkizuneko ibilbidean eraginkorrakoak izan daitezzen.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkar-teak topaketan parte hartu zuen eta jardunbide egokitzat hautatu dituzten Bai Euskarari, Enpresarean eta Lanabes proiektuak aurkeztu zituen Rober Gutiérrezz elkarteko zuzendariak.

Hizkuntza ekonomiaren sustatzaile

izeneko mahai-inguruan parte hartu zuen Bai Euskararik ekainaren 24an. Mahaian izan ziren, Rober Gutiérrezekin batera: Orlagh Ní Raghallaig (Foras, Irlandako gaelikoa), Mirjam Vellinga (Afûk, frisiera), Jorge Gimenez (Bikain eta Euslan, euskara) eta Ainhoa Irureta (Eika kooperatiba, euskara). Euskara eta lan-munduari-kin lotutako galdera ezberdinak jarri zituen mahai-gainean Anaje Narbaiza moderatzaileak.

Donostia 2016 hiriburutzaren programaren barruan antolatu zuten Hitzargiak Topaketa.



Zer da Hitzargiak?

Hitzargiak – Elkar argitzen duten hizkuntzak egitasmoak Europako hizkuntza-aniztasunaren alde egiten du, biziberritze-prozesuan murgilduta dauden hizkuntza- eta hiztun-komunitateen arteko harreman berriak sortu eta jadanik existitzen direnak indartuko baititu. Zenbat eta hizkuntza-komunitate gehiago aktibatu eginkizun honetan, orduan eta aukera gehiago izango da emaitza arrakastatsua izateko.

Hiztun-komunitateek erabili izan dituzten mota guztietako jardunbide egokiak ditu ardatz proiektuak. Jardunbide horiek berritzaileak, egokiak, arrakastatsuak edota eredugarriak dira, bai sortu dituzten komunitateentzat, baita beste hiz-

kuntza- edota hiztun-komunitate hainbatentzat ere.

Jardunbide egokiak ezagutzeak ondorio biderkatzaileak izan ditzake: esperientziak partekatzeak, besteengandik ikasteak, elkar elikatzeak eta laguntzeak ekimenen arrakasta indartu dezake, eta, ikuspegi globala eta lokala uztartuz gainera, nazioarteko mugimendua sendotu.

Horrenbestez, jardunbide egokiak biltzea eta webgunean erakustea du helburu Hitzargiak proiektuak, bai eta hizkuntzak biziberritzen diharduten erakundeak elkarrekin harremanetan jartzea ere. Hitzargiak – Elkar argitzen duten hizkuntzak proiektua lagungarri izango da Europako hizkuntza-komunitateen artean ezagutza eta jardunbideak trukatzeko.

Informazio gehiago Hitzargiak.eu helbidean.



www.enpresarean.eus

/enpresarean

@enpresarean



**Enpresa eta profesional sarea,
euskaraz**

- Enpresa munduko sibilak
- Elkarlanerako komunitateak
- Azokari buruzko informazioa



Lan eta bizi euskaraz

Rikar Lamadrid

Lanekiko presidentea

*“Lan-mundua euskalduntzen
Lanbide Heziketak ezin du
bakarrik jardun; enpresen
laguntza ere ezinbestekoa da”*



Gaur egun hain garrantzitsua den Lanbide Heziketan euskararen presentzia handitzeko eta sendotzeko etengabeko lanean dihardu Laneki elkarteak. 2015 urtetik du Bai Euskarari Ziurtagiriaren maila gorena, Zerbitzua eta lana euskaraz maila, hain zuzen ere. *Jakinbai.eus* Lanbide Heziketarako euskarazko materiala jasotzen duen Interneteko ataria sortu zuen eta etengabe elikatzen ari da.

Zer da Lanekirentzat Bai Euskarari saria jasotzea?

Poz handia ematen digu saria jasotzeak eta aitortza ere egiten die Lanekiren atzetik dauden guztiei: Ikaslan eta Heltel elkartei, eta irakasle guztiei.

Zein izan da Lanekik euskarari eta Lanbide Heziketari egin dion ekarpena?

Lanbide Heziketaren euskalduntzea izan da ekarpena. Lanbide Heziketa euskalduntzeak gizartea eta mundu profesionala euskalduntzea dakar atzetik. Gure ekarpena ez da gelditu dokumentazioan bakarrik, materialaren sorreran, euskalduntze prozesu batean murgiltzen ere lagundu dugu.

Lan handia egiten ari zarete Lanbide Heziketan euskararen presentzia handitzeko eta sendotzeko. Nola baloratzten dute hori ikasleek?

Azken urteetan oso balorazio ona edukitu du. Urteen poderioz zikloak euskalduntzen joan dira eta euskarazko materialazioek gora egin dute. Euskara ikastea eskatzen duten ikasleak gehiago eta gehiago dira eta eskaera horri erantzuna ematen diogu.

Garrantzitsua da enpresentzat lan-gile euskaldunak kontratatzea?

Enpresetan bide luze bat dago joratzeko. Enpresa batzuek euskaldunak bakarrik diren ikasleak onartzen dituzte eta beste batzuek euskara jakitea eta erabiltzea puntuatzen dute.

Kontratazioetara iritsi baino lehen, ordea, praktikak egiten dituzte ikasleek. Ikasketa prozesua euskaraz burutu ondoren, praktikak euskaraz egiteko aukera dute ikasleek?

EAEko Lurralde Historiko bakoitzean egoera ezberdina da. Gipuzkoan prak-

“Ikastetxeetan, terminologia lantzeaz gain, euskalduntzearen kultura sortzen egin dugu lan”





Zein ekarpen egin lezake Lanbide Heziketan euskara bultzatzeak lan-mundua euskalduntzeko bidean?

Lanbide Heziketako ikasleek, lan-mundura doazenean, ikastetxean izandako ohiturak eta bizipenak eramaten dituzte. Horrek esan nahi du Lanbide Heziketan euskaraz ikasiz gero, lantegira doazenean euskaraz egingo dutela lehenengo. Horregatik uste dugu pausu garrantzitsua dela. Baina lan-mundua euskalduntzen Lanbide Heziketak ezin du bakarrik jardun; enpresen laguntza ere ezinbestekoa da.

Lanbide ezberdinetako terminologia sortzen edo euskaratzen lan itzela egin duzue.

Terminologiarekin bakarrik ez; materiala sortzeak atzetik ohitura bat ekartzen du. Ikastetxeetan, terminologia lantzeaz gain, euskalduntzearen kultura sortzen egin dugu lan.

Baten bat nabarmentzekotan, zein lorpen nabarmenduko zenukete zuen proiektuaren barruan?

Arotzeriaren inguruko hiztegi digitala, adibidez. Arotz batzuen artean hiztegia sortu zuten eta iazko Durangoko azokan aurkeztu genuen. Lorpen

“Gure ekarpena ez da gelditu dokumentazioan bakarrik, materialaren sorreran, euskalduntze prozesu batean murgiltzen ere lagundu dugu”

garrantzitsua izan zen hori. Aurten *Lanpres* gida aurkeztu dugu: ikasleak lanbide prestakuntzara doazenean, bertan euskararen erabilera-maila bermatzeko gida da. Beste zeharkako lorpen bat da taldean lan egiteko ohitura sortzea. Irakasleen arteko lan-taldeak sortzen ari gara eta emaitza handiak ematen ari dira. Badago kohesio bat irakasle eta ikastetxeen artean, eta gure asmoa da enpresak ere talde horietan barneratzea.

Zein etorkizuneko erronka du Lanekik?

Lan handia dago egiteko. Lanekiren azken helburua desagertzea izango litzateke. *Lanpres* gidari lotuta eskaera asko izan ditugu enpresetatik, oso baliagarri ikusten dutelako egindako lan hori. Orain gure erronketako bat da lan-mundua Lanbide Heziketara eta euskarara hurbiltzea.

Eredugarri ikusten duzue zuen entitatearen besteendako?

Euskararen alde egiten den edozein ekintza eredugarria da guztiontzat; euskararen aldeko erakunde guztiak eredugarriak gara. ●

KULTURA
EUSKARA
SUSTATZEN

ekar



www.ekar.eus

ALGORTA - ARBASATE - BAIONA - BASAURI - BERGARA - BILBO - DONOSTIA - GASTEIZ - HERNANI - IRUN - IRUÑEA - TOLOSA

Ainhoa Agirre Sorginen Museo eta Lezeak kudeatzailea

“Zugarramurdiar aunitzi aukera ematen zaie herrian bizi eta lan egiteko”

2013an eskuratu zuen Bai Euskarari Ziurtagiria Sorginen Museo eta Lezeak. Oso argi dute euskarak duen garrantzia; bezeroari eskainitako zerbitzuetan, beraien euskarrietan eta aurkezpenetan, esate baterako, euskara lehenesten dute beste hainbat hizkuntzen artean. Era berean, mugaz gaindiko Xareta eskualdeko dinamizatzaile ekonomiko bihurtu dira bertan turismoa sustatuz.

Zer da zuentzat Bai Euskarari saria jasotzea?

Hagitz pozgarria izan da, eta benetan harro eta esker oneko sentitzen gara, gure kasuan aintzat hartu delako euskararen erabilera normala. Sari honek ikusbidea eman dio egunerokotasunean barneratua dugun lan egiteko modu bati.

Oso argi duzue euskarak duen garrantzia zuen proiektuan. Zein balio ematen dio horrek proiektuari?

Zugarramurdi kokatuta dauden Sorginen Museo eta Lezeak, bertako historiari hitz egiten digutenek, edukiak euskaraz adieraziko ez balituzte arraroa egingen litzaiguke, ezta? Hemen lehen momentutik, museoaren egitasmoa proposatu zenetik, eta ondoren burutu ditugun bisita eta ekimen ugarietan kontutan hartu da euskararen erabilera. Bitxia da, eta aldi berean aberatsa, lan-kideon artean eta zerbitzua ematean Bortzirietako euskara, baztandarra edo lapurtera erabiltzen ditugula, bakoitzak dakarrena eskaintzen duelako.

Zein neurri hartzen dituzue euskara lehenesteko?

Edozein bisitari edo hornitzailearekin zuzenean nahiz e-postaz harremanetan jartzeko lehen hitza beti euskaraz izaten da, eta gauza bera agurtzerakoan. Erantzungailuko mezuan ere ordutegiei buruzko informazioa lehenik euskaraz aditu daiteke. Argitaratzen ditugun afixa eta eskuorrietan ere euskarak badu presentzia, gehienetan elebitan egiten baititugu.



Bai, eta gainera hori zen helburua hasieratik: Xaretan gauden lau herriok (Ainhoa, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi) bertako ondarea balioan jartzea, kanpotar zein etxekoei modu zehatz eta erakargarrian ezagutzera emateko, eta honen atzean dagoen tokiko garrantzia erakusteko.

Zuena ez da museo soil bat, Xareta eskualdeko dinamizatzaile ekonomiko bihurtu zarete bertan turismoa sustatuz.

Bai, eta gainera hori zen helburua hasieratik: Xaretan gauden lau herriok (Ainhoa, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi) bertako ondarea balioan jartzea, kanpotar zein etxekoei modu zehatz eta erakargarrian ezagutzera emateko, eta honen atzean dagoen tokiko garrantzia erakusteko.

“Ezinezkoa hitza gutitan erabiltzen dugu hemen”



#BaiEuskarariSariak

pen proiektua behin ere bistatik galdu gabe.

laz 25.000 lagunek bisitatu zuten Sorginen Museoa eta 106.000tik goitik Lezea. Hau 210 biztanle dituen herri batentzat ez da guti, eta ongi kudeatuz gero zugarramurdiar aunitzi aukera ematen zaie herrian bizi eta lan egiteko, eta tarteka elkarrekin antolatzen ditugun kontzertu eta proiektioez disfrutatzeke.

Zein izan dira eskualdeko lorpen handienak Sorginen Museo eta Lezea sortu zirenetik?

Azkeneko urteotan teknikariok eta auzapezek elkarlanean aritzeko dinamika polita mantendu dugu, turismo mailan ekimen komunak burutuz eta promozio arloan eskaintza bateratua landuz. Berriki, azkeneko Xareta egunean, www.xareta.eus webgunea aurkeztu dugu, paraje hauetako leku bisitagarri eta jardunaldien berri izan nahi duenarentzat martxan dena.

Zein izan da Sorginen Museoak eta Lezeak izandako bilakaera? Zer na-

barmenduko zenukete ibilbide horretan?

Gaur egun, edonon identifikatzen da Zugarramurdi *Sorginen herria*-rekin. Noski, Alex de la Igleziaren filmak izan du bere eragina, baina nabarmendu nahiko genituzke erabakigarriak izan diren bertze puntu batzuk ere.

Errate baterako zugarramurdiarrak hagitx mugituak dira eta beldurrik gabe ematen diote baietza interesgarritzat jotzen den edozein ekimen berriri. Beraz bizilagunen kuraia eta prestasuna eskertzekeak dira.

Aipatzekoak dira, halaber, 2007tik aitzin Zugarramurdi Garapena enpresatik bultzatu diren ekimen berritzaileak, izpiritu ekintzailez eta ilusioa galdu gabe aitzinera eraman direnak, batzuetan bisitarien nahiei erantzunez eta bertzeetan biztanleei begira.

Urte hauetan Udalarekin eskutik joateak ere bidea erraztu du. Gauzak horrela, "ezinezkoa" hitza gutitan erabiltzen dugu hemen.

Zer eskaintzen diozue bisitariari?

Eskaintza ugaria dugu: turismo bu-

legoa, denda, gidatutako bisitaldiak museoan eta lezean, sorgin batek gidatutako bisitaldia, eskolentzako tailer didaktikoak, bisita antzeztuak, Alex de la Igleziaren *Zugarramurdi* sorginak filmean oinarritutako bisitaldia, proiektzio eta hitzaldiak. Uda honetarako bisita berezi bat garatzen ari gara, laister www.turismozugarramurdi.com webgunekeo agendan sartuko duguna.

Zeintzuk dira gaur egun museoaren helburu eta erronka nagusiak?

Museoan nahiz Lezean osatu ditugun bisita eta tailerrak lantzen jarraituko dugu, publiko ezberdinen berezitasunak kontuan hartuz, eta beti esperientzia edo bizipenen arloan indarra jarritz.

Gure ekipamendu kultural hau ere erreferente bihurtu da herritarrentzat, errotu da, eta honen adierazgarri auditoriuma edo ganbaran dugun aretoa noiznahi erabiltzen direla, talde ezberdinen beharrei erantzuteke. Dinamika honekin jarraitzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Eta epe laburrera, 2017an Sorginen Museoaren 10. urteurrena ospatuko dugu, beraz laster hasi beharko dugu egitasmo eta ideia guziak mahai gainean jartzen datorren urteko egitaraua zehazteko. ●

"Sari honek ikusbidea eman dio egunerokotasunean barneratua dugun lan egiteko modu bati"

LANsarean
bilalan

www.lansarean.eus

@lansarean



Enpresa eta profesional euskaldunak
harremanetan jartzeko **webgunea**

- Lan bila zabitza?
- Lana eskaintzen duzu?



Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

Bai Euskarari

ziurtagiri bat baino askoz gehiago

Mapa

Non eros dezaket euskaraz? Ezagutu ziurtagiridunen datu-basea eta mapa.

Praktika egokiak

Ezagutu euskaraz lanean jarduteko praktika egokiak.

Eskaintza bereziak

Deskontua izango dute .EUS domeinua eskuratzen duten ziurtagiridunek.

Baliabideak

Diru-laguntzak, hiztegiak, formazioa on-line, euskarazko ikas-materiala, dokuteka...

Enpresarean

Euskaraz lan egiten duten enpresen eta profesionalen komunitatea. Azaroaren 3an "Enpresarean azoka" izango dugu. Laster egitaraua eta izena emateko epea zabalduko dira.

Lansarean

Profesional euskaldunek lana aurkitzeko, zein euskaraz lan egiten duten enpresek langileak bilatzeko lan-ataria.

bai
euskarari



baieuskarari.eus



/baieuskarariziurtagiria



@baieuskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz



enpresarean.eus



/enpresarean



@enpresarean

LANsarean
bilalan

lansarean.eus



/lansarean



@lansarean